

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA BERRIKUNTZAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 205/2024 Erabakia, apirilaren 16koa. Onespena ematea ikus-entzunezkoak sortzeko 2024ko laguntza lerroen deialdiari

Arabako Foru Aldundia, Arabako Lurralde Historikoaren garapen ekonomikoa sustatzeko duen zereginaren barruan, 2018an hasi zen kultura eta sormen industriei laguntzen, bereziki ikus-entzunezkoen azpisektorearen ekintzailtzari eta sendotzeari.

Arabako Foru Aldundiaren asmoa da Arabako ikus-entzunezkoen industriari laguntzen jarraitzea.

Horiek horrela, ikus-entzunezkoen proiektuak garatzeko eta ekoizteko eta gidoiak idazteko dirulaguntzen deialdia egitea proposatzen da, betiere Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileen esparruan (ALHAO, 143. zenbakia., 2019ko abenduaren 13koa), hartara ahalik eta zabalkunderik handiena ematearren eta behar bezala betetzearren publikotasun, lehia eta objektibotasun printzipioak eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak. Horretarako, 250.000,00 euro egongo dira guztira, eta aurrekontu partida hauen kontura ordainduko dira: Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko ekitaldiko gastu aurrekontuaren 15101. G/433152/77000161 partida, 150.000,00 euroko zenbatekoan 2024ko ekitaldirako, eta 100.000,00 euroko konpromiso kreditua oinarri 2025eko ekitaldirako.

Horregatik, lehenengo diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Ikus-entzunezkoen sorkuntzarako 2024ko laguntzen deialdia onestea (erabaki honi erantsi zaio).

Bigarrena. Honako hauek arautuko dute deialdi hau: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzaren eskumenen esparruan, norgehiagoka bidez ematen diren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriek, zeinak Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuak onetsi baititu (ALHAO, 143. zenbakia., 2019ko abenduaren 13koa), eta dekretu honen eranskinean ezarritakoak.

Hirugarrena. Erabaki honek arautzen dituen dirulaguntzak, guztira 250.000,00 eurokoak, aurrekontu partida hauen kontura ordainduko dira: Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko ekitaldiko gastu aurrekontuaren 15101. G/433152/77000161 partida, 150.000,00 euroko zenbatekoan 2024ko ekitaldirako, eta 100.000,00 euroko konpromiso kreditua oinarri 2025eko ekitaldirako.

Kopuru osoa 2. artikuluan ezarritako modalitateen artean banatuko da, honela:

- Zinemako, plataforma digitaletako eta telebistako proiektuak gauzatzeko laguntzak: 50.000,00 euro.
- Film luzeak eta sormen dokumentalak ekoizteko laguntzak: 60.000,00 euro.
- Film laburrak ekoizteko laguntzak: 60.000,00 euro.
- Telesailak ekoizteko laguntzak: 60.000,00 euro.
- Gidoiak idazteko laguntzak: 20.000,00 euro.

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileen 7.2. oinarria betez, saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio funts horiek birbanatzeko, balioespen batzordeak hala proposatuta. Horretarako, ebazpena emango du, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

Era berean, emandako dirulaguntzak subrogatu ahal izango ditu deialdi hau oinarri hartuz erakunde onuradunek interes ekonomikoko taldeak (IET) eratzen dituztenean diruz lagundutako proiektuak gauzatzeko, betiere horien xede soziala ekoizpen jarduerak egitea baldin bada eta erakunde berriak deialdi honetako onuradun izateko betekizunak betetzen baldin baditu.

Deialdiaren funtzionamendu egokia bermatzeko, gehieneko zenbateko osoaren ehuneko 30erainoko kopuru gehigarria ezarri da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauko 21.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Laugarrena. Ebazpen honen bitartez administrazio bidea bukatuko da eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikularekin bat etorritik, berraztertze aukerazko errekurtsoa jarri ahal izango da Foru Gobernu Kontseiluan ebazpena argitaratu ondorengo egunetik hasita hilabeteko epean, edo zuzenean aurkaratu ahal izango da Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bosgarrena. Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Saileko foru diputatuari eskumena ematen zaio deialdi hau garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro emateko.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunean eraginak izango ditu.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 16a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Saileko foru diputatua

SARAY ZÁRATE FERNÁNDEZ DE LANDA

Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaria

ANDER LARRINAGA SAIZ

ERANSKINA

IKUS-ENTZUNEZKOEN SORKUNTZARAKO 2024KO LAGUNTZEN DEIALDIA

1. artikulua. Xedea

Deialdi honen xedea da laguntzak norgehiagoka bidez eta itzuli beharrik gabe ematea, ikus-entzunezko proiektuak eta gidoen idazketa gauzatzen eta ekoizten laguntzeko 2024ko ekitaldirako.

2. artikulua. Laguntza modalitateak

Hona hemen laguntza modalitateak:

- Zinemako, plataforma digitaletako eta telebistako proiektuak gauzatzeko laguntzak.
- Ikus-entzunezko lanen ekoizpenaren kategoria hauetarako laguntzak:
 - Film luzeak eta sormen dokumentalak ekoizteko laguntzak.
 - Film laburrak ekoizteko laguntzak.
 - Telesailak ekoizteko laguntzak.
- Gidoiak idazteko laguntzak.

3. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehieneko zenbateko osoa

Deialdi honen bidez araututako dirulaguntzak hauen kontura ordainduko dira: Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko ekitaldiko gastu aurrekontuaren 15101. G/433152/77000161 partida, 150.000,00 euroko zenbatekoan 2024ko ekitaldirako, eta 100.000,00 euroko konpromiso kreditua oinarri 2025eko ekitaldirako.

Kopuru osoa 2. artikuluan ezarritako modalitateen artean banatuko da, honela:

- Zinemako, plataforma digitaletako eta telebistako proiektuak gauzatzeko laguntzak: 50.000,00 euro.
- Film luzeak eta sormen dokumentalak ekoizteko laguntzak: 60.000,00 euro.
- Film laburrak ekoizteko laguntzak: 60.000,00 euro.
- Telesailak ekoizteko laguntzak: 60.000,00 euro.
- Gidoiak idazteko laguntzak: 20.000,00 euro.

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileen 7.2. oinarria betez, saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio funts horiek birbanatzeko, balioespen batzordeak hala proposatuta. Horretarako, ebazpena emango du, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz. Era berean, emandako dirulaguntzak subrogatu ahal izango ditu deialdi hau oinarri hartuz erakunde onuradunek IET eratzten dituztenean diruz lagundutako proiektuak gauzatzeko, baldin eta haien xede soziala ekoizpen jarduerak egitea baldin bada eta erakunde berriak deialdi honetako onuradun izateko betekizunak betetzen baldin baditu.

Deialdiaren funtzionamendu egokia bermatzeko, gehieneko zenbateko osoaren ehuneko 30erainoko kopuru gehigarria ezarri da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauko 21.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. artikulua. Onuradunak

4.1. Onuradunek Arabako Lurralde Historikoan izan beharko dute egoitza soziala eta fiskala.

4.2. Zinemako, plataforma digitaletako eta telebistako proiektuak gauzatzeko laguntzen eta ikus-entzunezko lanak ekoizteko laguntzen kasuan (2. artikuluko 2.1., 2.2.a., 2.2.b. eta 2.2.c. modalitateak), pertsona fisiko edo juridiko pribatu independenteak izan ahalko dira onuradunak, baldin eta ekonomia jardueren gaineko zergaren epigrafea laguntza xede den jarduerarena

bada, eta Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuko Zinematografia Enpresen Administrazio Erregistroan -I. atala, ekoizpena- (ICAA) inskribatuta badaude (edo, gutxienez, eskaera inskribatzeko badago).

“Pertsona pribatu independentea” terminoa Zinemaren abenduaren 28ko 55/2007 Legearen 4.n) artikuluko definizioaren arabera aplikatuko da.

Era berean, onuradun izan daitezke ekonomia intereseko taldeak. Talde horiek, ondorio horietarako, ekoiztetxe independenteekin parekatuko dira, baldin eta IET-ko kide diren ekoiztetxe ez independenteek ez badaukate, zuzenean edo zeharka, beren kapital sozialaren ehuneko 20 baino gehiago, Zinemari buruzko abenduaren 28ko 55/2007 Legearen 4.n) 1.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

4.3. Gidoiak idazteko laguntzen kasuan (2. artikuluko 2.3 modalitatea), jarduera profesional gisa gidoiak idazten dituzten pertsona fisikoak izan ahalko dira onuradunak (JEZaren kasuan kasuko epigrafean).

4.4. Ezin izango dituzte dirulaguntzak eskatu sozietate publikoek eta zuzenbide publikoko erakundeek, ez eta irabazteko xederik gabeko erakundeek eta sozietate jardueretan edo jarduera profesionalean (elkarteak, elkargoak...) dihardutenek ere.

4.5. Onuradunek egunean eduki beharko dituzte zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

4.6. Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 12. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

4.7. Baldintza horiek eskaera aurkezten den unean bete beharko dira, eta betetzen jarraitu beharko dira dirulaguntza emateko prozesu osoan (dirulaguntza ematea, betebeharra aitortzea, ordaintzea eta justifikatzea). Betetzen ez badira, laguntza ukatu edo itzuli egin beharko da, zein unetan gertatzen den.

5. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

5.1. Honako jardun hauek diruz lagundu ahalko dira, modalitate bakoitzeko:

A) Zinemako, plataforma digitaletako eta telebistako proiektuak gauzatzea.

1. Zinemarako lanak:

• Fikzioa, animazioa eta sorkuntza dokumentalak: gutxienez 60 minutuko iraupena.

2. Plataforma digitaletarako eta/edo telebistarako lanak:

• Fikzioa, animazioa eta sorkuntza dokumentalak (banakako proiektuak): gutxienez 45 minutuko iraupena.

• Fikzioa eta sorkuntza dokumentalak (telesailak): gutxienez 22 minutuko iraupena kapitulu bakoitzeko.

• Animazioa (telesailak).

“Proiektua gauzatzea” da ikus-entzunezko ekoizpen bat prestatu eta diseinatzea, ekoizpen fasearen aurreko eragiketetan oinarrituta; hona hemen zer lan egiten diren:

B) Ikus-entzunezko ekoizpena.

1. Fikziozko, animaziozko eta sorkuntza dokumentalen film luzeak ekoiztea, edozein hizkuntzatan.

Ondorio horietarako, honako hau joko da fikziozko edo animaziozko film luzetat: hirurogei minutuko edo gehiagoko ikus-entzunezko lan bateratua, amaiera daukana.

Sorkuntza dokumentaltzat joko dira errealitatetik hartutako gaia duten proiektuak; aldi berean, gai jakin bati buruzko ikerketa edo azterketa lan jatorrizkoa izango da, hirurogei minutukoa edo gehiagokoa zinemarako bada, eta berrogeita bost minutukoa edo gehiagokoa telebistarako edo plataforma digitaletarako badira.

2. Film laburrak ekoiztea, edozein hizkuntzatan.

Film laburtzat joko dira edozein euskarritan egindako filmak, 60 minututik beherakoak.

3. Telebistarako edo interneten bidez hedatzeko ikus-entzunezko lan seriatuak ekoiztea. Diruz lagundu ahal izateko, gutxienez hiru kapitulu izan beharko dituzte, eta formatu hauetakoren batera egokitu beharko dira:

a) Fikziozko telesailak, laurogeita hamar minutu edo gehiagokoak.

b) Animazio telesailak, gutxienez hogeita lau minutukoak.

c) Sorkuntza dokumentalak, halakotzat jota errealitatetik hartutako gaia duten proiektuak; aldi berean, gai jakin bati buruzko ikerketa edo azterketa lan jatorrizkoa izango da, guztira berrogeita hamar minutukoa behintzat.

Telesail bateko lehenengo denboraldia bakarrik diruz lagunduko ahal izango da.

Ezin izango dute dirulaguntzarik jaso 2024ko urtarrilaren 1a baino lehen estreinatutako lanek.

C) Gidoiak idaztea.

Laguntzak emango dira fikzio eta animazioko zinematografia film luzeen gidoiak idazteko, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan, eta, gehienez ere, bi gidoi diruz lagunduko dira deialdi bakoitzeko.

Ezin izango dituzte laguntza hauek jaso erabat gauzatuta dauden gidoiek; gidoi tratamendua baino ez da onartuko. Era berean, ez da onartuko gidoia enkarguz egitea, ezta ere gidoiaren gaineko eskubideak laga badira edo laguntza eskaera aurkezten den egunean hori egiteko konpromisoa badago.

5.2. Eskatzaile eta modalitate bakoitzeko gehienez bi proiektu aurkez daitezke deialdi honetara, baina proiektu bakar batek jaso ahal izango du dirulaguntza pertsona eta modalitate bakoitzeko. Proiektu bera ezin izango da laguntza modalitate batera baino gehiagora aurkeztu deialdi berean. Proiektu bera laguntza hauen hiru deialditara aurkeztu ahal izango da, gehienez, modalitate bererako.

5.3. Laguntza hauen aurreko deialdietan dirulaguntza jaso eta gauzatu ez diren proiektuek ezin izango dute berriz ere modalitate bera eskatu, salbu eta eskaera aurkezteko unean laguntzari uko egin badiote eta jasotako zenbatekoak osorik itzuli badituzte, baldin eta kobratu badituzte.

6. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

6.1. Gastu hauek diruz lagundu ahalko dira:

A) Proiektuak gauzatzea.

– Lanaren egile eskubideak eskuratzea.

– Gidoia gauzatzea: berridaztea edo egokitzea, kanpoko aholkularitza, itzulpena. Jasotako dirulaguntzaren ehuneko 20a, gutxienez, eta ehuneko 50a, gehienez, gidoia gauzatzeko erabiliko da.

– Sustapen materiala diseinatu eta egitea: material inprimatua eta/edo digitala, teaserra, programa pilotua, story board-a, komunikazio kanalak (webgunea, sare sozialak...).

– Marketin eta banaketa plana lantzea.

- Merkatu eta koprodukzio foroetara joatea: lekualdatze, ostatu eta akreditazio gastuak.
- Casting-a eta kokapenen bilaketa.
- Ikerketa dokumentala, grafikoa (animazio proiektuetan) eta artxiboen bilaketa.
- Gauzatzea kudeatzeko langile gastuak (aurrekontuaren ehuneko 15 gehienez).
- Aholkularitza juridikoa eta fiskala aurkeztutako proiekturako: koprodukzio kontratuen gaineko aholkularitza eta haiek idaztea, aurrekontuak, lanaren gaineko eskubideak, proiektuan parte hartzen duten profesionalekin sinatutako kontratuak.
- Gastu orokorrak (aurrekontuaren ehuneko 5 gehienez).

Proiektua garatzeko aurrekontua ez da ekoizpenaren aurrekontu osoaren ehuneko 20 baino handiagoa izango.

B) Ikus-entzunezko ekoizpena.

Film baten kostuaren aitorpena arautzen duen abenduaren 18ko ECD/2784/2015 Aginduaren 2. artikuluan jasotakoaren arabera diruz lagundu daitezkeen gastuak dira.

C) Gidoiak idaztea.

Gidoia osorik idaztea.

6.2. Proiektua gauzatzeko edo ikus-entzunezko ekoizpena egiteko aurrekontuaren ehuneko 30 –gehienez 800.000,00 euro– erabili beharko du onuradunak, gutxienez, Arabako Lurralde Historikoan bizi diren edo kokatuta dauden pertsona fisiko edo juridikoek egindako lanak egiteko. Koprodukzioa izanez gero, ehuneko 30 hori onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenean duen partaidetza kuotari aplikatuko zaio.

7. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoak

7.1. Dirulaguntzaren zenbatekoa, modalitateka, honako hau da:

A) Proiektuak gauzatzeko:

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa, oro har, 15.000,00 euro izango da, edo eskatutako zenbatekoa, baldin eta hori baino gutxiago bada.

2. Laguntza publikoen batura ezingo da izan proiektuaren gauzate kostuaren ehuneko 80 baino gehiago.

B) Ikus-entzunezko ekoizpen proiektuak.

1. Fikziozko, animaziozko eta sorkuntza dokumentalen film luzeak ekoiztea:

Dirulaguntzaren zenbatekoa, oro har, 20.000,00 euro izango da, edo eskatutako zenbatekoa, baldin eta hori baino gutxiago bada.

2. Film laburrak ekoiztea:

Dirulaguntzaren zenbatekoa, oro har, 10.000,00 euro izango da, edo eskatutako zenbatekoa, baldin eta hori baino gutxiago bada. Salbuespen gisa, eta beste modalitate batzuetako aurrekontu soberakinik badago, balioespen batzordeak 15.000,00 eurora arte esleitu ahal izango dizkie puntuazio handiena duten proiektuei.

3. Ikus entzunezko lan seriatuen ekoizpena:

Dirulaguntzaren zenbatekoa, oro har, 60.000,00 euro artekoa izango da, edo eskatutako zenbatekoa, baldin eta hori baino gutxiago bada.

Film laburren kasuan izan ezik, laguntzak ez du gairatutako ekoizle eskatzailearen inbertsioa, hau da, baliabide propioekin eta itzuli beharreko besteren baliabideekin emandako kopurua eta film luzea ustiatzeko eskubideak lagatzeagatik lortutakoa. Ez dira inola ere ekoizlearen

inbertsioztat joko jasotako dirulaguntzak, ez eta telebista zerbitzu publikoa zuzenean edo zeharka kudeatzen duen edozein administrazio, erakunde, enpresa publiko edo sozietatek egindako ekarpen ez-itzulgarriak ere, haiek edozein motatakoak direlarik.

Koprodukzioak baldin badira, Arabako Foru Aldundiaren laguntza inoiz ez da izango ekoiztetxe eskatzailearen egiazko partaidetza baino handiagoa, eta hark gutxienez azken ekoi-zpenaren ehuneko 25 izan beharko du.

C) Gidoiak idaztea:

a) Dirulaguntza 10.000,00 eurokoa izango da.

b) Modalitate honetan jasotako laguntzak bateraezinak dira beste edozein erakunde publikok edo pribatuk helburu bererako ematen dituenekin.

c) Eskatzaileak gidoiaren eskubideen ehuneko 50 izan beharko du gutxienez.

7.2. Diru esleipen nahikorik ez egoteagatik ezin bada diruz lagundu modalitate bakoitzetik laguntza jaso dezakeen azken proiektuaren gehieneko zenbatekoa, esleitu daitekeen zenbatekoak proiektuaren bideragarritasuna bermatzen badu -balioespen batzordeak hala irizten badio- baino ez da emango dirulaguntza.

8. artikulua. Gauzatzeko epeak

8.1. Laguntza jakinarazten denetik, onuradunak 2025eko urriaren 31ra arteko epea izango du "Proiektuak gauzatea", "Film laburrak ekoiztea" -bai eta lehenengo kopia estandarra lortzea ere, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik- eta "Gidoia idaztea" jarduerak amaitzeko.

8.2. Film luzeak eta telesailak sortzeko eta ekoizteko dokumentalak ekoizteko modalitateetan, onuradunak gehienez ere hiru urteko epea izango du, laguntza jakinarazten zaionetik, ekoizpena amaitzeko (bai eta lehenengo kopia estandarra lortzea ere).

8.3. Filmaketaren hasiera eta amaiera datak Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuari jakinaraziko zaizkio. Hasiera data jakinaraztean, egutegi eguneratua eta filmaketa plana erantsiko dira, denbora eta kokalekuak adierazita. Animazio lanen kasuan, kontratu irmoa animazio estudioarekin.

9. artikulua. Prozeduraren instrukzioa egiteko organo eskudunak

9.1. Prozedura instrukzioa Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak bideratuko du.

9.2. Balioespen batzorde bat eratuko da, eta honako hauek osatuko dute:

– Lehendakaria: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Kidea: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Idazkaria: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuko teknikari bat.

Eskaerak ebaluatzeko, balioespen batzordeak aditu eta profesional independenteen parte-hartzea eduki ahal izango du.

Haien izendapenak Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Saileko foru diputatuaren ebazpen bidez onetsiko dira. Baldin eta izendatuetakoren bat Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 23. artikuluan ezarritako abstentzio arrazoiren batean badago, egoera horren berri izan bezain laster, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuari jakinarazi beharko dio, eta ez du parte hartuko delako proiektuaren edo proiektuen balioespenean.

Dirulaguntza modalitate bakoitzerako, balioespen batzordeak, dirulaguntza emateko/ukatzeko proposamenekin batera, txosten bat igorriko dio ebazteko eskumena duen organoari. Txosten horretan, onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten eskaera guztien eta emandako

puntuazioen arabera ordenatuta egongo den zerrenda jasoko da. Zerrenda hori erabiliko da, beharrezkoa izanez gero, baldin eta onuraduna den erakunderen batek hasieratik uko egiten badio edo ez badu onartzen emandako laguntza, halako moldez non baliabide horiek balioko baitute finantzatzen laguntzeko diru esleipen nahikorik ez izateagatik osorik edo partez diruz lagundu ezin izan diren proiektuak.

10. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta lekua

10.1. Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta hurrengo hilabeteko egun berean amaituko da, 14:00etan, edo, egun hori baliogabea bada, hurrengo egun balioduneko 14:00etan.

10.2. Pertsona juridikoak izanez gero, eskaerak ezinbestean Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez aurkeztu behar dira <https://egoitza.araba.eus/eu/hasiera>. Horretarako, eskatzaileak ziurtagiri elektronikoa izan behar du lehenago. Egoitza elektronikora sartzeko bideak zeintzuk diren eta entitate ziurtatzaile batek jaulkitako ziurtagiri elektronikoa non eskatu behar den jakiteko, jo Ezagutu Egoitza–Nola sartu izeneko atalera.

Pertsona fisikoek, aukeran, Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean (Probintzia plaza 5. zenbakia, 01001 Vitoria-Gasteiz) egin dezakete eskaera, eta hori Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuari zuzenduta egongo da, bazter utzi gabe Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan zehaztutakoa.

10.3. Eskaera bat aurkeztuko da aukeratutako proiektu eta laguntza modalitate bakoitzeko. Eskaerak aurkezteko, web inprimakia bete beharko da –elektronikoki aurkeztuz gero–, edo eskaera orria, zeina eskuragarri baitago Arabako Foru Aldundiaren web orrian <https://web.araba.eus/eu/ekonomiaren-garapena/laguntzak> –paperean aurkeztuz gero–.

10.4. Eskaerarekin batera, deialdi honetan zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko da, zein modalitatetarako eskatzen den laguntza.

10.5. Eskatzaileak baliozkotzat joko ditu Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaritzak eta/edo zerbitzuak laguntzaren eskaeran harremanetarako pertsonaren posta elektronikoko kontura bidalitako komunikazio guztiak.

10.6. Dirulaguntza eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematen duela erakunde izapidetzailak zuzeneko moduan eskuratu ahal izateko 4. artikuluan adierazten diren inguruabarren egiaztagiriak, eta bereziki Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko egoerari buruzkoak.

10.7. Nolanahi ere, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zerbitzuak beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertu eta ebaluatzeko.

11. artikulua. Eskaerarekin batera aurkezten den beharrezko dokumentazioa

Behar bezala betetako eskaera orriarekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

A) Proiektua gauzatzeko eta ikus-entzunezko ekoizpena egiteko modalitateak.

1. Eskatzaileari buruzko dokumentazioa:

a) Laguntza eskatzen duenaren nortasuna egiaztatzea.

b) Jarduera ekonomikoen gaineko zergan (JEZ), 961.1 epigrafean –"zinematografia filmen ekoizpena (bideoak barne)"–, alta emanda egotearen ziurtagiria.

c) Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuko Zinematografia Enpresen Administrazio Erregistroan -I. atala, ekoizpena- (ICAA) izena emanda egotearen ziurtagiria.

2. Proiektuari buruzko dokumentazioa.

2.1. Eskatutako dokumentazioa:

a) Proiektu bererako eskatutako eta lortutako laguntzen aitortpena eta haien zenbatekoa, ereduaren arabera.

b) Proiektuaren memoria, zeinak honako hauek jasoko baititu:

– Proiektu mota eta haren ezaugarri teknikoak.

– Proiektua maila artistikoan azaltzea: asmoak, historia, pertsonaiak, erreferentziak, etab. Ikus-entzunezko ekoizpen proiektuetan: fitxa teknikoa eta artistikoa (parte hartzaileak).

– Proiektuak gauzatzeko:

- Gauzatze plana, hauexek jasota: aurreikusitako ekintza guztien deskribapen zehatza eta ekintza bakoitzaren hasiera eta amaiera datak zehazten dituen egutegia.

- Aurrekontua partidaka xehatua eta finantzaketa plana -ereduaren arabera-.

- Gutxi gorabeherako ekoizpen aurrekontu orokorra eta haren finantzaketa plana.

– Ikus-entzunezko ekoizpen proiektuetarako:

- Ekoizpen plana, hauexek jasota: aurreikusitako egutegia eta filmaketa plana (edo animazio prozesuaren plana, hala badagokio), denbora eta kokalekuak adierazita, eta, zehazki, Araban zenbat egun filmatu den eta guztira zenbat egun, edo, animazio proiektua bada, zein estudiotan egingo den, haren izena eta IFK.

- Partidaka xehatutako aurrekontua (film laburren kasuan, nahikoa da kapitulukako laburpen orria aurkeztea), ICAAren ereduaren arabera, zeina eskuragarri baitago Arabako Foru Aldundia-
ren web orrian (<https://web.araba.eus/eu/garapen-ekonomikoa/laguntzak>), "Ikus-entzunezkoen sorkuntza" atalean.

- Finantzaketa plana eta finantzaketa iturriak, ereduaren arabera.

- Merkaturatze eta banaketa plan zehatza.

c) Gidoiaren sinopsia. Telesailen kasuan, telesailaren sinopsi orokorra.

d) Gidoi osoa edo, bestela, Gauzatze kasuan, gidoiaren tratamendua (gehienez 30 orrialde). Telesailen modalitatean, kapitulu guztien gidoirik ez badago, kapitulu pilotuaren gidoi osoa eta gainerako atalen sinopsia.

e) Jatorrizko gidoiaren edo lehendik dagoen lanaren gaineko jabetza intelektualeko eskubideak izatearen egiaztagiria edo, halakorik ezean, eskubideak lagatzeko aukera eta etorkizuneko kontratua hitzartuta izatearen egiaztagiria. Animazio lanen kasuan, proiektuaren oinarri diren diseinu grafikoak, marrazkien, sorkuntza plastikoak edo irudien titulartasuna egiaztatzea.

f) Gauzatze edo ikus-entzunezko ekoizpen proiekturako proposatutako zuzendariaren eta gidoilariaren idatzizko onarpena.

2.1. Dokumentazio osagarria:

a) Ekoiztetxearen historia, "eranskina – ekoiztetxearen historia" atalaren arabera, eta, harekin batera, ikusleen edo leihatilaren emaitzak, jasotako sariak eta komunikabide espezializatuatan adierazitako kritikak erakusten dituen dokumentazioa, balioespenean kontuan hartzeko. Gainera, datozen bi urteetarako ekoizpen aurreikuspenak.

b) Zuzendariaren eta gidoilariaren historia, eta, harekin batera, ikusleen edo leihatilaren emaitzak, jasotako sariak eta komunikabide espezializatuatan adierazitako kritikak erakusten dituen dokumentazioa, balioespenean kontuan hartzeko.

c) Kontratuak edo, halakorik ezean, sinatutako erantzukizunpeko adierazpenak eta/edo intereseko gutunak, egiaztatzen dutenak emakumeak daudela zuzendaritzan, ekoizpen exekutiboan, gidoigintzan, argazki zuzendaritzan edo musika konposizioan.

d) Koprodukzio-kontratuak, halakorik badago.

e) Hala badagokio, diruz lagundutako film laburra Araban erakusteko baldintzak zehazten dituen konpromiso sinatua.

f) Proiektuak gauzatzeko:

- Zuzendariak eta/edo gidoilariak ez badu aldez aurretik film luzerik egin, baina bai film laburrak edo telesailak, haiek ostatatuta dauden web orrietarako estekak.

- Proiektua gauzatzean parte hartzen duten arduradun artistikoen sinatutako erantzukizunpeko adierazpenak eta/edo intereseko gutunak, non adieraziko baita Araban bizi direla, hala bada-gokio.

- Koprodukzio etxeak, ekoiztetxe elkartuak eta banatzaileak bilatzeko plana, balioespenean kontuan hartu ahal izateko.

B) Gidoiak idazteko modalitatea.

1. Gidoia idatziko den jatorrizko hizkuntzan soilik aurkeztu beharko dira agiri hauek, egilea zein den identifikatzeko bereizgarririk gabe:

a) Gidoi proiektuaren argumentu sinopsia, 1 eta 3 orrialde arteko luzerakoa.

b) Gidoi proiektuaren tratamendu sekuentziatua, 15 eta 30 orrialde arteko luzerakoa.

c) Elkarrizketa sekuentzia, 3 eta 5 orrialde artekoa.

d) Proiektuaren azalpen memoria, proiektuaren interesa eta eman nahi zaion izaera zehazten dituen, orrialde 1 eta 3 orrialde arteko luzerarekin.

2. Gainera, behar bezala betetako eskaera inprimakiarekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Laguntza eskatzen duenaren nortasuna egiaztatzea.

b) JEZearen, jarduera profesionalen 861 epigrafean, alta emanda egotearen egiaztagiraren kopia, zine gidoilariari dagokiona delako.

c) Gidoilariaren ibilbide artistikoa.

d) Erantzukizunpeko adierazpena, "eranskina - gidoiak" atalaren arabera.

e) Dokumentazioa, non egiaztatzen baita jabetza intelektualaren erregistroan erregistratutako eta estreinatutako zinematografia eta/edo ikus-entzunezkoen lanen gidoilari gisa agertzen dela, baita jaialdi desberdinetan lortutako sariak egiaztatzen dituen dokumentazioa ere.

f) Erantzukizunpeko adierazpena, non adierazten baita ez dela jaso administrazio publikoek edo erakunde pribatuek helburu bererako emandako bestelako laguntzarik, ereduaren arabera.

12. artikulua. - Balioespen irizpideak

12.1. Eskaerak ondoren adierazten diren irizpideen arabera balioetsiko dira, eta gutxienez 50 puntu lortu beharko dira dirulaguntza jasotzeko. Hauek dira baremoak modalitateen arabera:

A) Ikus-entzunezko lanak:

1. Proiektuaren kalitatea eta balio artistiko eta profesionala (gehienez 40 puntu): Gutxienez, 25 puntu lortu behar dira irizpide honetan proiektuak dirulaguntza jaso ahal izateko.

Ikus-entzunezko proiektuak dirulaguntza jaso badu laguntza hauen beren aurreko deialdietan, 5 puntu gehituko zaizkio irizpide honi, betiere ez bada gainditzen harentzat ezarritako puntu muga. Hala ere, laguntza hori kontuan hartzeko, emandako dirulaguntza behar bezala gauzatuta eta justifikatuta egon beharko da, dagokion deialdiaren araudiarekin bat etorritz.

– Proiektuaren originaltasuna (gehienez 10 puntu).

– Egingarritasuna eta kaudimen profesionala (gehienez 20 puntu); haietatik:

Ekoiztetxearen historiala (gehienez 10 puntu), zuzendariaren historia (gehienez 5 puntu) eta gidoilariarena (gehienez 5 puntu). Lehenago egindako proiektuak eta lanak hartuko dira kontuan, eta zenbat proiektu egin diren baino gehiago balioetsiko dena izango da ikusleen edo leihatilaren zer emaitza lortu diren, zer sari jaso diren eta zer kritika adierazi den komunikabide espezializatuetan.

• Zuzendarikidetzeta edo egilekidetzeta bada, proportzionalki hartuko da kontuan.

• Zuzendariaren eta/edo gidoilariaren lehenengo edo bigarren film luzea bada, 2 puntu gehituko zaizkio kasu bakoitzean, betiere bakoitzarentzat ezarritako puntu muga gainditzen ez bada.

• Eskatzailea ekonomia intereseko talde (EIT) bat denean, ekoiztetxe independente eskatzaileak emango du kaudimena, baldin eta talde horretako kidea bada, eta, aldi berean, laguntza eskatzeko unean taldeko bazkide nagusia bada, eta, gainera, taldeko administratzailea bada.

• Laguntza eskaera aurkezten den egunean laguntza modalitate honen aurreko deialdietan diruz lagundutako proiektuetan emandako luzapenen bat indarrean duten ekoiztetxeek 5 puntuko penalizazioa izango dute.

– Aurkeztutako gidoiaren eta/edo tratamenduaren kalitatea (gehienez 10 puntu).

2. Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa (gehienez 30 puntu):

– Aurrekontua eta proiektuari egokitzea (gehienez 10 puntu).

– Finantza kaudimena (gehienez 10 puntu).

a) Proiektuak aurrekontuari dagokionez duen finantzaketa (gehienez 5 puntu). Halakotzat joko da hau: proiektuaren diru sarrerak (aurkeztutako diru sarreraren aurrekontuko kontzeptu guztiak, salbu eta erakunde eskatzailearen ekarpena eta deialdi honetarako eskatutako dirulaguntza) zati aurrekontuko diru sarreraren guztizko zenbatekoa eragiketarik ateratzen den ratioa. Puntuazioa kalkulatzeko, honela jokatuko da: autofinantzaketa maila handiena duen proiektuari gehieneko puntuazioa emango zaio; gainerakoak hiruko erregela baten bidez banatuko dira.

b) Banaketa eta marketin estrategia, koprodukzioak (gehienez 5 puntu).

– Zenbaterainoko autofinantzaketa edo finantzaketa pribatua dagoen (gehienez 10 puntu): proiektuak dituen laguntza publikoetatik ez datorren finantzaketa balioetsiko da. Autofinantzaketa maila handiena aurkezten duenak lortuko du gehieneko puntuazioa, eta gainerakoek proportzioan lortuko dute.

3. Proiektuak lurraldean izango duen inpaktu sozioekonomikoa (gehienez 30 puntu):

– Arabako Lurralde Historikoarekiko lotura (gehienez 15 puntu): ikus-entzunezko lanaren filmaketa lurraldean egitea, edo hori aurreikusita izatea proiektuak gauzatzearen kasuan. Zenbat egunetan filmatzen den Arabako Lurralde Historikoan, horren arabera esleituko dira puntuak, aurreikusitako filmaketaren guztizko iraupenari dagokionez. Animazio lanen kasuan, filmaketa eguna animazio estudioan lan egindako eguntzat joko da, eta Araban egin dela ulertuko da baldin eta animazio estudio horrek sozietatearen eta zergen egoitza lurralde historiko horretan badu.

– Emakumearen parte hartzea (gehienez 5 puntu):

• Zuzendaria (2 puntu).

• Ekoizle exekutiboa eta/edo argazkigintza zuzendaria edo musika konpositorea (gehienez 2 puntu).

• Gidoilaria (1 puntu).

– Jatorrizko bertsioa euskaraz (gehienez 5 puntu): Halakotzat jotzeko, laguntza hauetara aurkeztu den tratamenduaren edo gidoiaren elkarrizketen ehuneko 70 baino gehiago jatorriz euskaraz idatzia egon beharko da. Aukeran, gaztelaniazko itzulpena erantsi ahal izango da, balioespen batzordeko kideen balioespen lana errazteko.

– Lana Araban erakustea edo lurraldean hura sustatzeko ekitaldiak gauzatzea (gehienez 5 puntu): ekoiztetxeak konpromisoa hartzen badu lana Araban jendaurrean erakusteko, kalifikazioa lortu eta hurrengo sei hilabeteen barruan, edo lurraldean hura sustatzeko ekitaldiak antolatzen baditu.

B) Gidoiak idaztea:

1. Proiektuaren originaltasuna eta kalitatea (gehienez 50 puntu): gutxienez, 25 puntu lortu behar dira irizpide honetan proiektuak dirulaguntza jaso ahal izateko.

– Proiektuaren originaltasuna (gehienez 15 puntu).

– Tratamenduaren eta sekuentziaren kalitatea (gehienez 25 puntu).

– Gaiak daukan interesa (gehienez 10 puntu).

2. Zinematografia egingarritasuna edo bideragarritasuna (gehienez 10 puntu).

3. Proiektuak izango duen inpaktu sozioekonomikoa (gehienez 30 puntu):

– Jatorrizko bertsioa euskaraz (gehienez 10 puntu): gidoiaren tratamendua jatorriz euskaraz idatzita badago eta hala 10 puntuak lortzen badira, gidoia euskaraz aurkeztu beharko da justifikatzeko unean. Halakotzat jotzeko, laguntza hauetara aurkeztu den tratamenduaren elkarrizketen ehuneko 70 baino gehiago jatorriz euskaraz idatzia egon beharko da.

– Arabako Lurralde Historikoarekiko duen lotura (gehienez 10 puntu).

– Genero ikuspegiaren integrazioa (gehienez 5 puntu).

– Laguntza eskatzen duen egilea emakumea bada (gehienez 5 puntu).

4. Gidoilariaren historia profesionala (gehienez 10 puntu):

Bi (2) puntu emango dira film luzeko gidoi bakoitzeko, baldin eta areto komertzialetan erakusteko kalifikatuta badaude eta eskatzailea gidoilari gisa agertzen bada; gehienez 4 puntu.

Puntu 1 emango da jaialdietan saritutako film laburren gidoi bakoitzeko, edo 0,50 puntu jaialdietan erakutsitako film laburren gidoi bakoitzeko, baldin eta eskatzailea gidoilari gisa agertzen bada; gehienez 3 puntu.

0,25 puntu emango dira estreinatu diren ikus-entzunezko lanen beste edozein gidoiengatik, baldin eta eskatzailea gidoilari gisa agertzen bada; gehienez 3 puntu.

Gidoilariak badaude, alderdi hori kontuan hartuko da balioesteko, eta puntuazioak proportzionalak izango dira.

12.2. Egiten den balioespenak oinarri izango ditu eskatzaileek aurkeztutako froga elementuak, eta balioespen batzordeak egiaztatu eta erkatu ahal izango ditu.

13. artikulua. Deialdiaren ebazpena eta jakinarazpena

13.1. Balioespen batzordeak proposatuta, beharrezko ebazpenak emango ditu organo eskudunak. Ebazpen horiek, ahal dela, bide elektronikoa bidez jakinaraziko dira, banan-banan, eta hala ezin bada, gutun ziurtatu bidez, bat etorritik Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoarekin.

13.2. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Beraren aurka, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan dioenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Foruko Gobernu Kontseiluari,

jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aurrean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

14. artikulua. Onuradunen betebeharrak

a) Berariaz onartu behar da emandako laguntza, hamar egun balioduneko epean hura emateko jakinarazpena jaso ondoren. Hala egin ezean, dirulaguntzari uko egin diola ulertuko da.

b) Laguntza emandako xede zehatzerako erabili beharko dute.

c) Aurkeztutako eskaeraren arabera onetsitako baldintzetan gauzatzea diruz lagundutako proiektua. Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren funtsezko alderdietan edo elementuetan proiektuaren edozein aldaketa egiteko, aldaketa egin aurretik, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuari eskatu beharko zaio. Hark baimendu badu baino ez da onartuko aldaketa.

d) Arabako Foru Aldundiak egindako egiaztatze jarduketak onartu beharko dituzte, bai eta finantza kontrolak edota kontu hartzaitzak egin beharrekoak ere eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan jasotakoak.

e) Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuari jakinaraztea deialdi honetara aurkeztutako gastu berak finantzatzen dituzten eta estatuko edo nazioarteko edozein administrazioak edo erakunde publikok edo pribatuk eman dituzten beste laguntza edo dirulaguntza batzuk eskatu edo jaso izana, laguntza horiek jakinarazten diren unean.

f) Arabako Foru Aldundiak eskatzaileei aurkeztutako dirulaguntza eskaria balioesteko egokitzen jotzen dituen azalpen eta agiri guztiak eskatu ahal izango dizkie.

g) Dirulaguntzak jasotzen dituzten onuradunek bere burua behartzen dute argiro adieraztera Arabako Foru Aldundiaren laguntza izan dutela erabiltzen dituzten publizitate euskarri edo plataforma guztietan. Era berean, aldundiaren finantzaketa hori agertu beharko dute, Arabako Foru Aldundiaren logotipoa barne, diruz lagundutako jarduerarako sortzen edo erabiltzen dituzten erakuts eta hedabideetan.

h) Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 13. artikuluan zehaztutakoak.

15. artikulua. Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea

15.1. Emandako laguntzen ordainketa justifikatu beharreko aurrerakin gisa egingo da. Dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 60 dirulaguntza emateko ebazpena onetsi ondoren ordainduko da, eta gainerako ehuneko 40a dirulaguntza zertarako erabili den justifikatu ondoren. Horretarako, hurrengo apartatuetan zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

15.2. Emandako laguntza justifikatuz jotzeko, onuradunak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du, modalitate bakoitzaren arabera, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuan, 2025eko urriaren 31n amaituko den epean:

A. Proiektuak gauzatzea:

a) Egindako jarduerari eta lortutako emaitzei buruzko txosten zehatza, izandako gastuen frogak jasotzen dituena, hala nola: sustapen eduki digitalak dituzten web orrietarako estekak, aukeratutako filmazio lekuen inguruko dokumentazioa, casting proposamenak, eta abar.

b) Gastuen eta diru sarreren laburpena, bai eta jasotako edo ebazteke dauden beste laguntza publiko batzuen ere.

c) Egotzitako gastuen zerrenda sailkatua, BEZa aparte datu hauekin: hartzekodunaren eta agiriaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data. Araban zer gastu egin diren ere zehaztu beharko da.

- d) Gauzatze gastuen zerrendan sartutako kostuen fakturak, nominak eta ordainagiriak.
- e) Gidoi osoa eta zuzendua.
- f) Gidoilari(ar) ekin eskubideak lagatzeko kontratua sinatzea, gutxienez bi urterako, edo gauzatuko den lanaren gaineko eskubideak erosteko aukera kontratua, gutxienez bi urterako.
- g) Lan planaren xehakapen berria.
- h) Ekoizpenaren behin-behineko aurrekontu berria.
- i) Marketin eta banaketa plan zehaztua.
- j) Erantzukizunpeko adierazpen eguneratua (justifikazio eranskina).

B. Ikus-entzunezko ekoizpenak.

B.1. Film luzeak, sorkuntza dokumentalak eta telesailak ekoiztea.

- a) Behin betiko aurrekontua.
 - b) Proiektuaren finantzaketaren egoerari buruzko txosten zehaztua (filma ustiatzeko eskubi-deen kontratu irmoak, telebista kateekin, plataforma digitalekin eta/edo banaketa sozietateekin sinatutakoak; jasotako beste laguntza batzuk; funts propioak edo beste finantzaketa bide batzuk), eta proiektuak haren kostu osoa estaltzeko behar den finantzaketaren gutxienez ehuneko 30 duela adierazten duen egiaztagiria.
 - c) Jada eginda dauden gastuen zerrenda sailkatua, BEZa aparte datu hauekin: hartzekodunaren eta agiriaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data. Bai eta kasuan kasuko fakturak eta ordainketa justifikazioak ere, haien guztien batura dirulaguntzaren zenbatekora, gutxienez, iristen bada.

d) Erantzukizunpeko adierazpena, adieraziz ekoizpenerako behar den denboran alta emango zaiela ekoiztetxeko langileei.

e) Egutegi eguneratua eta filmaketa plana, denbora eta kokalekuak adierazita.

f) Erantzukizunpeko adierazpen eguneratua (justifikazio eranskina).

Emandako laguntza justifikatuzat jotzeko, onuradunak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zerbitzuan, laguntza jakinarazten denetik hiru urteko epean:

a) Pendrive-a, DVD-a edo BluRay-a estreinatutako bertsio komertzial bakoitzeko, eta lana Euskadiko Filmategian gordailutu izanaren egiaztagiria.

b) Kontu ikuskatzaileak emandako txosten berezia, honako hauek egiaztatzen dituen: ekoizpenaren kostua, jasotako laguntza publikoak, ekoizleek egiaz egindako ekarpenak, haiek ekoizpenean dituzten titulartasun kuotak eta Arabako Lurralde Historikoko enpresa eta giza baliabideen gutxieneko ehuneko betetzen dela.

B.2. Film laburrak ekoiztea.

a) Pendrive-a, DVD-a edo BluRay-a estreinatutako bertsio komertzial bakoitzeko, eta lana Euskadiko Filmategian gordailutu izanaren egiaztagiria.

b) Kontu ikuskatzaileak emandako txosten berezia, honako hauek egiaztatzen dituen: film laburraren kostua, jasotako laguntza publikoak, ekoizleek egiaz egindako ekarpenak, haiek ekoizpenean dituzten titulartasun kuotak eta Arabako lurralde historikoko enpresa eta giza baliabideen gutxieneko ehuneko osoa betetzen dela.

Txosten horren orde, 10.000,00 euro baino gutxiagoko film laburren kasuan, gastuen eta diru sarreraren zerrenda aurkeztu ahal izango dute, Araban egindako gastua xehatuta, eta horrekin batera, film baten kostuaren aitorpena arautzen dituen abenduaren 18ko ECD/2784/2015 Aginduaren 7. artikuluan aurreikusitako dokumentazioaren jatorrizko agiriak edo kopia konpulsatuak.

C. Gidoiak idaztea.

a) Amaitutako zinema gidoiaren ale bat, euskarri digitalean (pdf formatua).

b) Jabetza Intelektualaren Erregistroko edo Eusko Jaurlaritzaren kege gordailuko inskripzioaren kopia.

c) Idatzitako gidoiaren analisia, aztertzaile independente batek egina, barnean azkeneko diagnostikoa duena.

d) Erantzukizunpeko adierazpen eguneratua (justifikazio eranskina).

15.3. Aurreko apartatuan adierazitako epea gehienez ere urtebetez luzatu ahal izango da (ezinbesteko kausa izan ezik, eta horrek beste behin luzatzera derrigortzen badu), onuradunak hori justifikatzen duten arrazoiak azaltzeko eskaera egin ondoren eta Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak proposatutako ebazpena onetsi ondoren. Proiektuak gauzatzeari dagokionez, onuradunak 6.1. A), 6.2. eta 7.1. A) 2. artikuluetan ezarritako baldintzak bete dituela egiaztatu beharko du.

15.4. Proiektuan koprodukzioak gehitzen badira edo (EIT) sortzen badira, erakunde eskatzaileak egindako gastua justifikatu beharko du, eta gastu hori ezin izango da emandako dirulaguntza baino txikiagoa izan.

15.5. Justifikazio epea igarota, ez bada aurkeztu eskatutako dokumentazioa, edo dokumentazio hori ez badago osorik, edo ez badira betetzen deialdirako eskatutako baldintzak, arrazoi horrengatik dirulaguntza gutxitu edo baliogabetu egingo da, kasuan-kasuan dagokionaren arabera. Salbuespenez, epez kanpoko justifikazioa onar daiteke, dokumentazioa epemugaren hurrengo hamar egunen barruan aurkezten bada, eta azkenean justifikatutako dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 20ko murrizketa aplikatuko zaio dirulaguntzari, behin jasotako beste laguntza publiko batzuk zenbatu ondoren.

16. artikulua. Itzularazteko arrazoiak

Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 foru arauan jasorikoak izango dira itzularazteko arrazoiak. Bereziki, honako hauek joko dira itzultzeko betebeharraren ez-betetze erabakigarritzat, foru arau horren 35. artikuluko f) letran jasotako baldintzetan:

– Eskatzen diren Arabako baliabideen gutxieneko ehunekoak betetzen ez badira, dirulaguntza itzuli beharko da, ez-betetze horren zati proportzionalean, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren iritziz behar bezala justifikatu ezean.

– Emandako dirulaguntza onartzean berariaz hartutako konpromisoak betetzen ez badira, eta konpromiso horien jatorria erakunde onuradunak eskaeran adierazitakoa bada, eta konpromisoak balioespenean kontuan hartu badira, berriz kalkulatu da zein izango litzatekeen espedientearen balioespena, datu errealekin, gainerako parametroak aldatu gabe mantenduta, dirulaguntza itzul dadin eskatzeko baino ez, baldin eta dirulaguntza lortu zuen azken proiektuaren puntuazioa lortzen ez bada edo, hala badagokio, dirulaguntzarik jaso ez zuen lehenengo proiektuarena.

17. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna eta mugak

17.1. Modalitatearen arabera ezarritako mugak alde batera utzi gabe, laguntzen zenbatekoak ezingo du inola ere gainditu, banaka edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua. Gainfinantzaketa publikoa gertatuz gero, emandako laguntzaren zenbatekoa dagokion gehieneko mugaraino murriztuko da.

17.2. Ikus-entzunezkoen ekoizpen modalitateetan, proiektu bakoitzerako emandako laguntza publikoen guztizkoak ezin izango du gainditu diruz lagundu daitezkeen kostuen ehuneko 50, salbu eta EBko estatu kide batek baino gehiagok finantzatutako mugaz gaindiko produkzioen kasuan eta estatu kide bateko baino gehiagoko ekoizleek parte hartzen dutenean; kasu horretan,

diruz lagundu daitezkeen kostuen ehuneko 60ra iritsi ahal izango da. Ikus-entzunezko lan zailak muga horiek aplikatetik salbuetsita daude. Jakiteko zer jotzen den ikus-entzunezko lan zailtzat eta zein diren haien mugak, Zinemaren abenduaren 28ko 55/2007 Legea garatzen duen abenduaren 4ko 1084/2015 Errege Dekretuaren 21.2 artikuluan ezarritakoa beteko da.

18. artikulua. Deialdiaren gauzatzea

Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Saileko foru diputatuari eskumena ematen zaio deialdi hau behar bezala garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro emateko. Era berean, ahalmena ematen zaio deialdian ezarritako baldintzak ez betetzeagatik bidezkoak diren itzulketak agintzeko.

19. artikulua. Publizitatea eta komunikazioa

Dirulaguntzak jasotzen dituzten onuradunek bere burua behartzen dute argiro adieraztera Arabako Foru Aldundiaren laguntza izan dutela erabiltzen dituzten publizitate euskarri edo plataforma guztietan. Era berean, aldundiaren finantzaketa hori agertu beharko dute, Arabako Foru Aldundiaren logotipoa barne, diruz lagundutako jarduerarako sortzen edo erabiltzen dituzten erakuts eta hedabideetan.

20. artikulua. Araubide juridikoa

Deialdi honetan ezarritako prozedura Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileetan ezarritakoaren mende dago, hauetan xedatutakoaren aurka ez badago: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, nahiz dirulaguntzei buruzko ondorengo gainerako xedapenak.